

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

#### Foru Gobernu Kontseiluaren 301/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Onestea Uribarri Arratzuko Kontzejuko batzorde kudeatzaileko kideen izendapena

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak Arabako Foru Aldundiari ezagutarazi dio hutsik daudela hainbat kargu Uribarri Arratzuko Administrazio Batzarrean, errejidore-lehendakariak eta bigarren batzarkideak beren karguei uko egin dietelako. Era berean, jakinarazi zaigu batzar horretako lehen batzarkidea hil egin zela, eta aipatutako kargu huts horiek ez direla bete ordezko hautetsirik ez dagoelako.

Horiek horrela, bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidore eta Kideak hautatzeko Foru Arauak 19. eta 21. artikuluetan eta Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak (Arabako administrazio batzarretako kudeaketa batzorde eta kide kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta haien funtzionamenduari buruzko arauak ezartzen ditu) bigarren apartatuan xedatutakoarekin, bidezkoa da, berriz ere hauteskundeetarako deia egin arte, administrazio batzarrean dauden kargu hutsak beteko dituzten pertsonak izendatzea kudeaketa batzorde gisa jarduteko.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak sail honi ematen dio, besteak beste, administrazio batzarretako hauteskunde araubidearen jarraipena egiteko eginkizuna, eta eginkizun horren barruan sartu behar da kargu horiek betetzeko foru aldundiak izendatzen dituen pertsonak proposatzea.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orekaren Saileko diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hona hemen

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Uribarri Arratzuko Kontzejuaren Kudeaketa Batzordeko kargu hauetarako izendatzea:

Lehendakari: Jesús María Insagurbe López de Gámiz.

Lehen batzordekide: Ainhoa Miñón Ruiz de Azua.

Bigarren batzordekide: Gerardo Pérez de Guereñu López de Subijana.

Bigarrena. Kide horiek erabaki hau jakinarazi ondorengo zazpigarren egun baliodunean hartuko dute kargua, 20:00etan, kontzejuaren aretoan edo biltzeko ohiko lekuan. Horretarako ez da berariazko deialdirik egin behar, eta bilerara, izendatukoez gain, erakundeko idazkariak joan behar du, eta bileraren akta idatziko du.

Bilkura egin eta hurrengo hiru egunen barruan bidaliko zaio Arabako Foru Aldundi honi bilkura horretako aktaren ziurtagiria.

Hirugarrena. Lurralde Orekaren Sailak erabaki hau ALHAOn argitara dezala.

Laugarrena. Jakinarazten zaizun erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta be-  
ronen aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango duzu  
zuzenean Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau  
jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa  
arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 7a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orokaren Saileko foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Orokaren zuzendaria*

**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**